

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Berantevillako Udala

Ayuntamiento de Berentevilla

2017





AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURTZAPENAK.....	5
I. SARRERA	7
II. IRITZIA.....	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	8
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	8
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	9
III.1 Aurrekontua eta Kontabilitatea.....	9
III.2 Diru-sarrerak eta diru-bilketa	9
III.3 Langileria.....	10
III.4 Transferentziak eta diru-laguntzak.....	10
III.5 Bestelako alderdiak.....	10
IV. FINANTZAREN ANALISIA.....	11
V. URTEKO KONTUAK	13
V.1 Udala.....	13
V.2 Berantevilla, SArein industria sustapena.....	16
ERANSKINAK	17
A.1 Fiskalizazio-gai den erakundearen izaera.....	17
A.2 Aurrekontua eta aurrekontuko aldaketak	17
A.3 Zergak, tasak eta bestelako sarrerak	18
A.4 Transferentziek eta diru-laguntzek eragindako sarrerak	19
A.5 Langileria-gastuak.....	19
A.6 Ondasu arruntetan eta erosketa eta zerbitzuetan gastuak	20
A.7 Emandako transferentzia eta diru-laguntzak	21
A.8 Aurrekontuko zordunak.....	22
A.9 PROMINBERSA.....	23



ABREVIATURAS	25
I. INTRODUCCIÓN	27
II. OPINIÓN	28
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	28
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales	28
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....	29
III.1 Presupuesto y contabilidad	29
III.2 Ingresos y recaudación.....	29
III.3 Personal.....	30
III.4 Transferencias y subvenciones.....	30
III.5 Otros aspectos.....	30
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	31
V. CUENTAS ANUALES	33
V.1 Ayuntamiento.....	33
V.2 Promoción Industrial de Berantevilla, SA	36
ANEXOS	37
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado.....	37
A.2 Presupuesto y modificaciones presupuestarias	37
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos	38
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones	39
A.5 Gastos de personal	39
A.6 Compras de bienes corrientes y servicios e inversiones.....	40
A.7 Transferencias y subvenciones concedidas	41
A.8 Deudores presupuestarios.....	42
A.9 PROMINBERSA.....	43



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURTZAPENAK

11/1995 FA	11/1995 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuei buruzkoa.
2/2016 Legea	2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
27/2013 Legea	27/2013 Legea, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasun neurriei buruzkoa.
3/2004 FA	3/2004 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko toki entitateen aurrekontuei buruzkoa.
56/2015 FD	56/2015 Foru Dekretua, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen kontularitzako esparru arautzailea onartzen duena.
57/2003 Legea	57/2003 Legea, Toki administrazioa eraberritzeko neurriei buruzkoa.
AFA	Arabako Foru Aldundia.
ALHAO	Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala.
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
FOFEL	Arabako Toki-erakundeak Finantzatzeko Foru Funtza.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
JEZ	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.
LZ	Lanpostuen Zerrenda.
OHZ	Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.
TAOAL	7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen.



I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osoko bilkurak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraikiz, Berantevillako Udalaren 2017ko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkotasuna: honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazioaren ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztaketak egitea kaltetu gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak Udalaren eta Udal sozietatearen aurrekontuko balantzeak, ekonomia-ondarearen emaitzen kontuak, memoriak eta likidazioak besarkatzen ditu.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa-prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Berantevillako udalerriak 443 biztanle zituen 2017ko urtarrilaren 1ean eta Udalean, udal administrazioaz gainera, Promoción industrial de Berantevilla, SA (PROMINBERSA) sozietate publikoa (% 100) barne hartzen du, hirigintza eta industria sustatzea helburu duena.

Udalerrian Berantevilla, Lacervilla, Mijancas, Santa Cruz del Fierro, Santurde eta Toberako kontzejuek esku hartzen dute eta hornidura eta saneamendu, kale-garbiketa, herriko argiak, hilerria eta gizarte-etxe zerbitzuak ematen dituzte. Udala Troperagain Partzuergoko atal da, zeinak industria-poligonoan banatzeko urez hornitzen duen, Udalak hornidura-zerbitzua ematen duen esparru bakarra. Gainera, zabor-bilketa Añanako Kuadrillak egiten du mankomunaturik eta hirigintza, animazio soziokultural eta udal-artxiboaren kudeaketan ere kolaboratzen du. AFAk eta Erribera Beitiko Udalak gizarte zerbitzuak ematen kolaboratzen dute.



II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritzira, Berantevillako Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeek zuzentasunez bete dute 2017ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Hona hemen Udalaren eta PROMINBERSAren 2017ko abenduaren 31ko Diruzaintza Geldikinean, Egoera Balantzean eta Ondare Garbian eragina duten doiketak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	AURREKONTUKOA	ONDAREKOA		
	DIRUZAINZA GELDIKINA	AKTIBOA	PASIBOA	ONDARE GARBIA
UDALA				
A.7 Añanako kuadri. eta Erribera Beitiko Udalaren 2017ko zerb. aitortu gab	(39)	-	39	(39)
A.9 Zuzentzea doiketengatiko finantza inberts. PROMINBERSAren kontuetan	-	(143)	-	(143)
GUZTIRA	(39)	(143)	39	(104)
PROMINBERSA				
A.9 Lau lursail eraikigarriren balio galera	-	(223)	-	(223)
A.9 Udal igerilekuan obregatikoa saldoa zuzentzea	-	(233)	-	(233)
A.9 Hartzekodun saldo ez eskagarria zuzentzea	-	-	65	65
GUZTIRA	-	(456)	65	(391)

2. Udalak ez du bere ibilgetu materiala eragiten duten egintza ekonomiko guztien kontularitzako erregistroa bermatuko duen jarraipenik egiten eta ez du 2010 baino lehenagoko alden elementuen arabera xehakapenik egiten. Horregatik guztiagatik, ezin esan daiteke Udalaren Balantzeko Ibilgetu materialaren saldoek, guztira 1,4 milioi eurorenak, islatzen duten Udalaren ondasun eta eskubideen egiazko egoera 2017ko abenduaren 31n.

Epaitegi honen iritzira, 1 eta 2. paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Berantevillako Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeek alderdi esanguratsu guztietan 2017ko ekitaldiaren jardura ekonomikoa eta abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- 2017ko aurrekontua hasiera batean 2017ko urtarrilean onartu zen, baina abuztura arte ez zen indarrean jarri, argitalpenean atzerapenak izan zituelako; ordea, araudiak agintzen du behin betiko onartu behar dela ekitaldia hasi aurretik. Aurrekontuaren likidazioa eta Kontu Orokorra onartzean ere (2018ko ekaina eta urria) atzerapenak izan ziren; ordea, arautegiak martxoaren 31n eta uztailaren 31n ezartzen ditu, hurrenez hurren, epemuga.
- 2017an alkateak aurrekontuaren 5 aldaketa onartu zituen, guztira 55.363 euroren zenbatekoan; ez zion, baina, horren berri eman Udalbatzari eta idazkari kontu-hartzaileak ez zuen txostenik egin. Gainera, aldaketa horietatik bi, 30.256 euroren zenbatekoan, ALHAOn argitaratu behar ziratekeen.
- Aurrekontuaren Exekuziorako Arauak (23.1 artikulua) aurreikusten du gastu-proposamenen (AD fasea) aurrekontuko kontrola egin behar dela prozedura negoziatu bidez izapidetutako kontratuetan (1 kontratu 2017an) eta hainbat ordainagiri eragiten dituzten kontratu txikietan (6 kontratu). Kontrol hori ez zen 2017an egin. Gainera, hedatzea komeni da kopuru esanguratsuko erosketa eta inbertsioetara.
- Osasun zentroko igogailuaren lanak 2016ko abenduan esleitu ziren eta 2017ko maiatzean egikaritu ziren, 34.961 euroren kostuarekin; ordea, udal aurrekontuan ez zen krediturik izan ekainera arte.

III.2 DIRU-SARRERAK ETA DIRU-BILKETA

- OHZ, JEZ, ur eta poligonoko gastuen kobrantza-erroldak alkateak onartu behar zituzkeen.
- 2017an erregistraturiko 1etik 3ra bitarteko kapituluetako saldoen baliogabetzea, guztira 191.606 eurorena, ez zen dagokion espedientean formalizatu eta preskribatuta daude 2014 baino lehenagoko zorrak. Alabaina, 2014ko saldoek, 60.138 euroren zenbatekoek, indarrean dira eta araztu egin behar lirатеke eta dagozkion kobrantzarako izapideak gauzatu.
- Udalak ez ditu dirubilketarako borondatezko aldiak kobratu gabe dituen zorrak premiatzen, eta horiek kontularitzako erregistroen arabera 2017ko abenduaren 31n 86.519 euro egin zuten.



III.3 LANGILERIA

- 2017ko abenduan indarrean zeuden artean 2007ko aldi baterako 2 lan kontratu, horietako bat dedikazio partzialekoa. Kontratuen iraupenak erakusten du garatutako egitekoek iraunkortasun izaera dutela eta honenbestez, egoera hori zuzendu egin behar da.
- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpen fiskaletan ez ziren 14.035 euroren ordainketak barne hartu.

III.4 TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

- Udalerrian diharduten 6 kontzejuek honako zerbitzu hauek ematen dituzte: argiteria publikoa, ur hornidura eta saneamendua, kale garbiketa, hilerria, gizarte-etxea e.a. Tokiko araudiak zerbitzu hauek Udalaren eskumen modura definitzen ditu eta kontzejuek eskuordetze bidez gara ditzakete; eskuordetze hori, baina, formalizatu egin beharko litzateke eta udalerrian diharduten 7 administrazioen egiteko eta jarduera eremuak bereizi, betiere eskuordetze zerbitzua modu egokian emateari mugatuz. Zehazki esanda, komeniko litzateke zerbitzu bakoitzari lotutako ondasunak identifikatzea eta zehaztea zein erakundek kudeatuko dituen hobekuntza-lanak eta finantzaketa, udalaren zein AFaren ekarpenak aintzat hartuta.
- Añanako kuadrillak laguntza ematen dio Udalari hirigintzako kudeaketan, agirien artxiboaren mantentze-lanetan eta kultur ikastaro eta jardueren programazioan; 2017an 14.506 euroren kostua izan du. Kuadrillak arautzen dituen Foru Arauak eskualde bakoitzeko udalekin lankidetzan aritzea aurreikusten du; ordea, ez dira Udalean jaso zerbitzu hauen mandatu-erabaki edo -ebazpenak ere.

III.5 BESTE ALDERDI BATZUK

- Udalak ez ditu ordainketa epeei buruzko nahitaezkoak diren hiruhileko txostenak egiten.
- Gastua onartu eta diru-laguntzak emateko ebazpenak 2017an kontularitzako kontratu edo agirietan aplikatu ziren, dagokion dekretua formalizatu gabe eta alkatetzako ebazpen liburu nahitaezkoa gorde gabe. Berebat, ez zitzaizkion Udalbatzari jakinarazi jaulkitako ebazpenak.
- Udal sozietateak 2008an amaitu zuen 21 etxebizitzaren sustapena; 2013az geroztik galerak izan ditu, kopuru txikikoak, baina etengabe eta honenbestez, aktiboak Udalari eskualdatu eta desegitea gomendatzen da.
- Toki erakundeak gardentasun eta informazio publikorako irispideari buruzko araudira egokitzeko prozesua 2015eko abenduan amaitu behar zatekeen. Ez da udal sozietateari buruzko informaziorik jasotzen. Udalari dagokionez, webgunean aurrekontuei buruzko informazioa jaso behar zatekeen eta emandako diru-laguntza, esleitutako kontratu eta izenpetutako hitzarmenen egikaritzari buruzkoa. Berebat, zinegotzien ondasunen eta jardueren gaineko aitortpenak ere barne hartu behar ziratekeen.



IV. FINANTZAREN ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan eta fiskalizazio-gai izan den urtean kitatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua:

FINANTZAREN ANALISIA

	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	Urtea			Urtea		
	2015(*)	2016(*)	2017	2015	2016	2017
Zerga zuzenak, zeharkakoak, tasak eta best. sarr. (1, 2 eta 3 kap.)	326	375	344	697	835	777
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	177	177	173	380	395	390
Ondare sarrerak (5. kap.).....	9	10	9	19	23	20
A. Diru-sarrera arruntak	512	562	526	1.096	1.253	1.187
Langileria gastuak (1. kap.).....	98	95	102	210	212	231
Ondasun arrunten erosketa eta zerbitzuak (2. kap.)	171	218	207	366	485	466
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	62	58	90	133	130	204
B. Funtzionamendu gastuak	331	371	399	709	827	901
Aurrezki gordina (A-B)	181	191	127	387	426	286
- Finantza gastuak (3. kap.).....	-	-	-	-	-	-
Eraitza arrunta	181	191	127	387	426	286
- Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	-	-	-	-	-	-
Aurrezki garbia	181	191	127	387	426	286
Inbertsio errealen besterentzea (6. kap.).....	5	-	-	10	-	-
Jasotako kapital transferentzia eta diru-laguntzak (7. kap.)	17	11	32	36	24	73
- Inbertsio errealak (6. kap.).....	(79)	(27)	(71)	(170)	(61)	(160)
- Kapital transf. eta diru-lag. (7. kap.).....	(56)	(74)	(49)	(120)	(165)	(110)
Kapitaleko eragiketen eraitza.....	(113)	(90)	(88)	(244)	(202)	(197)
Eragiketa ez finantzar. eraitza (1etik 7rako kap.)	68	101	39	143	224	89
Diruzaintza-geldikin likidoa	279	423	413	598	942	933
Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina	279	423	413	598	942	933
Zorpetzea 12/31n	-	-	-	-	-	-

(*) HKEEk fiskalizatu gabeko datuak.

Sarrera arruntak: % 3 egin zuten gora 2017 eta 2015 bitartean.

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak:** % 6 hobetu dira 2017an handitu zen poligonoko gastuen igoeraren eraginaren ondorioz. OHZk bere horretan eutsi dio, gainerako zerga eta tasen moduan.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** % 3 egin dute behera eta egonkor eutsi dio osagai nagusi duen FOFELi, baina eskuratutako gainerako diru-laguntzen zenbatekoa murriztuz.



Funtzionamendu-gastuak: % 21 egin dute gora 2015 eta 2017 bitartean, xehakapen honekin:

- **Langile-gastuak:** % 4 egin dute gora langile baten ordezkapenatarako eskatutako kontratazioen kontzeptuan.
- **Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa:** % 21 egin dute gora poligonoak gastu handiagoak eragin dituelako, sarrerren igoera eragitearekin batera.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** % 46ko igoera izan dute, izan ere beste ekitaldi batzuetako gastuak aitortu dira, beste udalerrri batean dagoen ikastetxe baten mantentze-lanek eragindakoa.

Aurrezki gordina eta garbia: Aurrezki gordina eta garbia bat bera dira, ez baitago finantza zamarik, eta lehenengo urteko sarrera arrunten % 35 izatetik, 2017an % 24 izatera aldatu da, arestian aipatutako ikastetxeko gastuen eraginez gastuek uneko igoera izan dutelako.

Kapital eragiketen emaitza: Hirurtekoko inbertsioak 177.404 eurorenak izan dira, udalerrian diharduten 6 kontzejuei emandako kapitaleko diru-laguntzen kopuru bertsua. Eskuratutako kapitaleko diru-laguntzek % 50ean subentzionatu dituzte kapitaleko eragiketak.

Gastu Orokorretarako Diruzaintza geldikina: Aldagai hau 2016an gehitu zen eta egonkor eutsi zion 2017an, nahiz urte horretan autofinantzaketak behera egin zuen. 2018rako erabilgarri dagoen Geldikina sarrera arrunten % 79 da.

Zorpetzea: Hirurtekoan Udalak ez du kanpoko finantzaketarik behar izan.

Ondorioa: Eragiketa arruntek sortutako aurrezkiak fluktuatu egin du aztertutako aldiaren baina lehenengo bi ekitaldietan sarrera arrunten % 30 gainditu zuen eta 2017an sarrera arrunten % 24 egin zuen. Aurrezki honek gainditu egin du kapitaleko eragiketen emaitza 3 ekitaldietan eta Geldikina hirurtekoko kapitaleko eragiketen kostua baino handiagoa da.

Aurrekontuaren egonkortasuna: Udalaren Kontuhartzailtzak aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun helburuak betetzeari buruzko txostena jaulki zuen. 2017ko Likidazioari buruzko txostenak ondorioztatu du bete egin direla gastu araua eta zorpetze-helburuak, baina urratu egin dela aurrekontuaren egonkortasun helburua, izan ere 8.914 euroren defizita izan da, eragiketa ez finantzarioena.

2018ko urriko Udabatzan dagokion Ekonomia eta Finantza Plana onartu zen.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

V.1 UDALAK

2017KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE KITAT.	KOB.R. KOB.R.	GABEA	% EXEK(*)
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.				
1.- Zerga zuzenak	A.3	220	-	220	224	162	62	101
2.- Zeharkako zergak	A.3	4	-	4	3	-	3	75
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	A.3	86	-	86	117	63	54	136
4.- Transferentziak eta diru-lagun. arruntak ...	A.4	173	-	173	173	173	-	100
5.- Ondare sarrerak	-	9	-	9	9	9	-	100
7.- Kapitaleko transferentziak	A.4	134	25	159	32	29	3	20
8.- Finantza aktiboak	-	-	30	30	-	-	-	-
SARRERAK GUZTIRA		626	55	681	558	436	122	99

(*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza-geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG. AITORT.	ORDAIN. ORDAINK.	ORDAIN. GABE	% EXEK.
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.				
1.- Langileria-gastuak	A.5	110	(2)	108	102	100	2	94
2.- Ondasun arrunten eta zerb. kontrat.	A.6	220	(10)	210	207	199	8	98
3.- Finantza gastuak	-	2	-	2	-	-	-	-
4.- Transferentziak eta diru-lagun. arruntak ...	A.7	79	18	97	90	90	-	93
5.- Kreditu globala eta beste batzuk	-	25	(5)	20	-	-	-	-
6.- Inbertsio errealak	A.6	151	43	194	71	71	-	36
7.- Kapital transferentziak	A.7	39	11	50	49	49	-	98
GASTUAK GUZTIRA		626	55	681	519	509	10	76
SARRERAK - GASTUAK					39			

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER. ZORRA	KOB.R./ BALIOG.	AZKEN ZORRA	
Zordunak	A.8	318	(202)	50	66
Hartzekodunak	-	15	-	14	1
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA			(202)		

AURREKONTUAREN EMAITZA

Euroak milakotan

Eskubide kitatuak	558
Obligazio aitortuak	519
INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	39
AURREKO EKITALDIETAN KITATUTAKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	-(*)
EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA	39
Finantzaketako desbideratzeak	-
Diruzaintza geldikinarekin finantzaturako gastuak	25
AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA	64

(*) Udalak ez ditu aintzat hartzen 2017an izandako 202.412 euroren baliogabetzeak.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

DIRUZAINZAKO GELDIKINA

Diruzaintza Geldikina 2017.1.1	423
Ekitaldiaren aurrekontu emaitza	(*) (164)
Huts egindakoen hornidurarako dotaz. aldatetak	154
DIRUZAINZTA-GELDIKIN LIKIDOA 17.12.31N	413
Diruzaintza	354
Aurrekontuko zordunak	188
Aurrekontuz kanpoko zordunak	9
Aurrekontuko hartzekodunak	(11)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	(32)
Aplikatzeko dauden ordainketak	1
Kaudimen-gabez. zuzkidura	(96)
DIRUZAINZTA-GELDIKIN LIKIDOA 17.12.31N	413
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza-geldikina	-
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZTA-GELDIKINA	413
GASTU OROKORRETARAKO DOITUTAKO DIRUZAINZTA GELDIKINA	413
(*) 2017ko 202.412euroren baliogabetzeak aintzat hartuta.	
ZORPETZEA 2017.12.31N	-



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEA 2017 ETA 2016-KO ABENDUAREN 31-N				Euroak milakotan	
AKTIBOA	2017	2016	PASIBOA	2017	2016
AKTIBO EZ ARRUNTA	1.924	1.942	ONDARE GARBIA	2.337	2.365
labilgetu ez-materiala	78	100	Ondarea	743	743
labilgetu materiala	1.415	1.411	Aurreko ekitaldien emaitzak.....	1.611	1.539
Finantza inbertsioak (PROMINBERSA)	431	431	Ekitaldiaren emaitza	(64)	72
			Jasotako diru-lag., emaitzetara egotzi gabe....	47	11
AKTIBO ARRUNTA	456	466	PASIBO ARRUNTA	43	43
Zord. eta kobratz. bst kontu batzuk	102	74	Zorrek epe laburrera	1	7
Eskud. eta bst. aktibo likido batzuk	354	392	Hartzekod. eta ordaintz. bst kontu batz.	42	36
AKTIBOA, GUZTIRA	2.380	2.408	PASIBOA GUZTIRA	2.380	2.408

ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA 2017 ETA 2016			Euroak milakotan	
	2017	2016		
Zergak	227	255		
Tasak	77	93		
Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	180	177		
Salmentak eta zerbitzuen prestazioa	37	24		
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.	12	13		
KUDEAK. ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA	533	562		
Langileria-gastuak	(127)	(109)		
Transferentziak eta emandako diru-laguntzak.....	(150)	(132)		
Kudeaketa arrunteko beste gastu b.	(182)	(204)		
labilgetua amortizatzea	(89)	(88)		
KUDEAK. ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	(548)	(533)		
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA	(15)	29		
Arruntak ez diren beste kontu sail batz.....	(11)	34		
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK	(26)	63		
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak	(38)	9		
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK	(38)	9		
EKITALDIKO EMAITZA	(64)	72		



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.2 PROMOCIÓN INDUSTRIAL DE BERANTEVILLA, SA

EGOERAREN BALANTZEA 2017 eta 2016ko abenduaren 31n				Euroak milakotan		
AKTIBOA	ERANSKINA 2017	2016	PASIBOA	ERANSKINA	2017	2016
			ONDARE GARBIA		679	683
			Kapital Soziala		431	431
			Erreserbak.....		46	46
			Aurreko ekitaldien emaitzak.....		206	211
			Ekitaldiaren emaitza		(4)	(5)
AKTIBO ARRUNTA	744	748	PASIBO ARRUNTA		65	65
Izakinak	A.9 716	717	Zorrek epe laburrera	A.9	65	34
Merkatar. hartz. eta beste	5	5	Hartzekod. eta ordaintz. bst kontu batz. .		-	31
Eskud. eta bst. akt. lik. baliok.....	23	26				
AKTIBOA, GUZTIRA	744	748	PASIBOA GUZTIRA		744	748

ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA 2017 ETA 2016	Euroak milakotan	
	2017	2016
Kudeaketa arrunteko beste gastu b.	(4)	(5)
KUDEAK. ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	(4)	(5)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA	(4)	(5)
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK	(4)	(5)
EKITALDIKO EMAITZA	(4)	(5)



ERANSKINAK

A.1 FISKALIZATUTAKO ERAKUNDEAREN IZAERA

Berantevillako Udala toki erakundea da, oinarrizko alderdietan 57/2003 Legeak eta 27/2013 Legeak aldarazitako TAOALek eta 2/2016 Legeak arautua.

Aurreko arategiak udalek ematen dituzten eskumen eta zerbitzu publikoak definitzen ditu, besteak beste: segurtasuna, garbiketa-zerbitzua, hiri-garraio kolektiboa, suteak itzaltzea, ura hornitzea, saneamendu-sarea, argiteria publikoa, hirigintzako diziplina eta kultur- eta kirol-jarduerak.

Ekitaldian ezargarria den ekonomia eta kontularitzako kudeaketa 3/2004 FAk eta 56/2015 FDK arautzen dute.

A.2 AURREKONTUA ETA AURREKONTUKO ALDAKETAK

2017ko Aurrekontua hasiera batean 2017ko urtarrilaren 26ko Udalbatzak onartu zuen eta 2017ko otsailaren 6an eman zen argitara ALHAOn. Behin betiko onetsitako aurrekontua 2017ko abuztuaren 2an argitaratu zen ALHAOn.

Ondoren, 2017ko aurrekontu-aldaketak kapituluka xehakatuko ditugu:

KAPITULUAK	Kreditu gehigarria	Kredituen gaikuntza	Euroak milakotan		
			Transferentziak +	-	GUZTIRA
7. Kapitaleko transferentziak	-	25	-	-	25
8. Finantza-aktiboen bariazioa	30	-	-	-	30
SARRERAK GUZTIRA	30	25	-	-	55
1. Langileria-gastuak	-	-	-	(2)	(2)
2. Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak	-	-	5	(15)	(10)
4. Transferentzia arruntak	12	-	8	(2)	18
5. Kreditu globala.....	-	-	-	(5)	(5)
6. Inbertsio errealak.....	18	25	-	-	43
7. Kapitaleko diru-laguntzak.....	-	-	11	-	11
GASTUAK GUZTIRA	30	25	24	(24)	55

Aldaketek gastuen hasierako aurrekontua % 9 gehitu zuten eta alkatearen ebazpen bidez onartutako 5 espediente izapidetu ziren.

Udalaren Aurrekontuaren likidazioa 2017ko ekainaren 12ko Alkatetzaren dekretu bidez onartu zen. Udalbatzaren lehendakariak aurkeztutako Kontu Orokorrak Kontuen Batzorde Bereziaren aldeko txostena jaso zuen eta jendaurrean agertu ostean, batere erreklamaziorik jaso ez zuela, Udalbatzak 2018ko urrian onartu zuen.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.3 ZERGAK, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen ekitaldian zehar zerga zuzen, zeharkako eta tasek eragindako sarreraren eta bestelako sarreraren xehapena:

	uroak milakotan
KONTZEPTUA	Sarrerak
Hiriko ondasun higiezin gaineko zerga	37
Landako ondasun higiezin gaineko zerga	98
Trakzio mekanikodun lbigailuen gaineko zerga	36
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga	53
ZERGA ZUZENAK GUZTIRA	224
Eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zerga	3
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	3
Ur-hornidura Lacorzanillako industria-poligonoari	48
Industria poligonoaren mantentze-lanen kostuak jasanaraztea	34
Udalaren kultura eta kirol jarduerak	3
Enpresa hornitzaileek lurzoru, zorupe eta lur-gainaren erabilera pribatua	29
Operadore telefonikoen konpentsazioa	2
Gainkarguak eta berandutze interesak	-
Udal ondasunetan eta beste txikiago batzuetan kalteen aseguruaren kalte-ordaina	1
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	117
1, 2 eta 3 KAPITULUAK GUZTIRA	344

Hiri izaerako lursailen balioaren igoeraren gaineko zerga borondatezko ordainarazpenekoa da eta Udalak ez du onartu hori aplikatzea.

1992an Udalbatzak hiri hondakinak biltzeko udal zerbitzua modu mankomunatuan ematea erabaki zuen; zerbitzu hau Añanako kuadrillak kudeatzen du eta baita dagokion tasa bildu ere.

A.4 TRANSFERENTZIEK ETA DIRU-LAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

Hona hemen 2017an transferentzia eta diru-laguntza arrunt eta kapitalekoek eragindako sarrerak:

ERAKUNDEA ETA KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	ARRUNTAK	KAPITALEKOAK
Arabako Foru Aldundia		
Zerga itunduak (FOFEL): konturako ordainketak 2017	165	-
Osasun zentroko igogailua.....	-	23
Poligonoko argiteriaren efizientzia energetikoa	-	2
Kirol- eta kultura-jarduerak	3	-
Euskal Autonomia Erkidegoa		
Osakidetza: Osasun zentroa.....	4	-
Bake-epaitegia.....	1	-
Beste batzuk		
Ekonomia eta enplegua sustatzeko estatuko plana	-	7
UDALA GUZTIRA	173	32

Itunpeko zergetan parte hartzeagatiko sarrerak (FOFEL) diru-bilketa balioespenak oinarri hartuta kalkulaturiko konturako kobrantzei dagozkie, hurrengo urtean kitatutakoak 1.804 euroren emaitza positiboarekin, zeina Udalak 2018an erregistratu baitzuen.

A.5 LANGILE-GASTUAK

Ondotik Udalaren langile-gastuak xehatu dira:

KONTZEPTUA	Gastua 2017	Euroak milakotan	
		LANPOSTU KOP.	
		LZ	Plantilla 17.12.31
Funtzionarioak (% 80ko dedikazioa)	35	1	1
Aldi baterako lan-kontratuko langileak.....	45	-	2(*)
Ordainsariak guztira	80	1	3
Gizarte Segurantzza	21		
Bizi-aseguruak eta istripuak.....	1		
UDALA GUZTIRA	102		

(*) Dedikazio partzialeko lan-kontratu bat.

Udalak 2008an Udalhitzera txertatzea onartu zuen.

Altak

2017ko ekitaldian Udalak ondoko langile-kontratazio hauek gauzatu ditu:

	Kontratu kop.
Aldi-baterako lan kontratuak	3
Ordezkapena	1
Programaren egikaritzea (hilabete)	2
GUZTIRA	3

A.6 ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZU ETA INBERTSIOEN KONTRATAZIOA

Hona hemen Udalaren gastuen 2. kapituluaren xehapena:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	Gastua
Eraikuntzak eta instalakuntzak konpondu eta zaintzea	27
Bulegoko material suntsigarria	10
Argindarra hornitzea	17
Ur hornidura	42
Komunikazioak	11
Garraioak (mezularia)	5
Erantzukizun zibileko aseguruak eta eraikinenak	2
Tributuak (udal ondarearen OHZ)	1
Hainbat gastu	46
Kultura jarduerak	13
Juridikoak-eskualdeko eskolari buruzko txostena	2
Musika, dantza, soinketa eta bestelako ikastaroak	29
Beste txikiago batzuk (publikotasuna, ordezkaritzea gastuak eta beste)	2
Enpresek egindako lanak	21
Udaletxea, anbulatorioa eta gizarte-etxea garbitzea	18
Nomina, kontularitzea eta langileen hautaketarako aholkularia	3
Zinegotzien bertaratzeagatik egun-sariak	20
Bi udal taldeei diru-laguntza	4
Lokomozio-gastuak	1
GUZTIRA	207

Inbertsioak eta ondasun-zerrenda

Hona hemen 2017ko inbertsioen xehakapena:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	Gastua
Igogailua osasun zentroan jartzea	33
Kale-izenetan 245 plaka jartzea	28
Poligonoko argietan bonbillak ordeztea (LED)	6
Beste txikiago batzuk	4
GUZTIRA	71



A.7 TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK

Ondotik transferentzia eta diru-laguntza korrante eta kapitalekoak jaso ditugu:

Onuraduna eta diruz lagundutako jarduera	Euroak milakotan	
	Arrunta	Kapitalek.
SEKTORE PUBLIKOARI TRANSFERENTZIAK	79	47
6 Kontzeju: Jaiak.....	30	-
4 Kontzeju: Obra eta zerb. foru planeko inberts. (araztegia eta gizarte etxea) eta beste obra batzuk	-	47
Añanako Kuadrilla: hirigintza 2016	5	-
Añanako Kuadrilla: artxibo zerbitzua 2016.....	5	-
Añanako Kuadrilla: animazio soziokulturala 2016	4	-
Añanako Kuadrilla: Eguneko zentroa eta gastu orokorretarako kuota finkoa 2016.....	1	-
Erribera Beitiko Udala: 2015 eta 2016ko ikastetxeko gastuak.....	32	-
Erribera Beitiko Udala: oinarrizko gizarte-zerbitzuak 2016.....	2	-
DIRU-LAGUNTZA ZUZENAK	10	-
Escanzanako jaien batzordea	1	-
Mendi-kluba: musika-jardunaldia eta Irunera bidaia	4	-
Aran Eder Kultura elkarte: Galiziara bidaia eta futbol afizionatua 2017-18	5	-
BESTE BATZUK	1	2
EUDEL udalen elkarte eta udal zergen 7 dedukzio	1	-
Egunkarien harpidetza gastuak	-	2
4 ETA 7 KAPITULUETAKO GASTUAK GUZTIRA	90	49

Añanako kuadrillaren eta Erribera Beitiko Udalaren likidazioek, 2017an Udalarari emandako zerbitzuen kontzeptukoek, guztira 39.380 euro egin zituzten eta 2018an gastu modura erregistratu ziren.

Kontzejuak

11/1995 Foru Arauak udalaz azpiko lurralde-eremuko toki entitate modura definitzen ditu kontzejuak, euren ondarea kudeatzeko (landa bideak eta erabilera publikoko mendiak, nagusiki) eta tradizionalki kudeatu dituen zerbitzuak ematen jarraitzeko eskumena dutenak. Azken zerbitzu hauek direla-eta, zehaztu gabe daude, baina FOFELen oinarrizko osagaia banatzean (funtsaren % 27), AFAk ekitaldi bakoitzean 10 udal zerbitzuren egoera hartzen du aintzat. 2017ko oinarrizko osagai hori banatzean Udalarari 2.029 euro eman zitzaizkion (osasun zentroa) eta 6 kontzejuei 71.896 euro, uraren hornidura eta saneamendu, herriko argi, hilerri eta gizarte zentroetako zerbitzuak emategatik. Ondoko taulan 6 kontzejuen 2017ko auditatu gabeko kontuak laburbildu dira:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Euroak milakotan

Kontzejua	Biztan.	AFA		Udala		Beste batzuk		Ordainketak		17.12.31
		FOFEL	obrak gastuak	obrak	Tasak	Kobr.	Arrunta	Inbertsioa	Diruzaintza	
Berantevilla	318	53	411	16	25	129	105	189(**)	536	50
Lacervilla	17	3	-	3	4	2	11	18	-	35
Mijancas	38	6	-	4	-	3	27	25	1	41
Sta. Cruz de Fierro	46	6	44	4	8	3	7	15	111	32
Santurde	28	3	-	4	6	2	6	10	16	3
Tobera	11	1	-	3	-	-	1	9	-	4
GUZTIRA		72	455	34(*)	43(*)	139	157	266	664	165

(*) Udalak kapitaleko diru-laguntza modura sailkatu zuen jaietarako ekarpen bat eta Udalak erabili ohi duen instalazio baten hornidura elektrikoena.

(**) Plantillan langileak dituen kontzeju bakarra (garbiketako langilea).

Jasanarazitako tasa nagusia ura hornitzeko da eta 6 kontzejuen ondare-sarrera 45.553 euro da.

Berantevillako kontzejuak 2017an hondakin-uren araztegi bat eraikitzeke lanak abiarazi zituen, 820.881 euroren aurrekontua zuena; eta Santa Cruz del Fierro gizarte-etxea zaharberitu zen, 45.539 euroren aurrekontuarekin; biak ala biak AFak subentzionatu zituen. Kontzeju bietako batek ere ez zuen zorpetzerik izan 2017ko abenduaren 31n.

27/2013 Legeak 2013an ziren kontzejuak eustea aurreikusten du, baina desegingo balira, bertako langileak eta dituzten eskubide eta obligazioak kontzeju horiek jasotzen dituzten udalei eskualdatuko zaizkie.

A.8 AURREKONTUKO ZORDUNAK

Ondotik, 2017ko abenduaren 31n tributu bakoitzeko aurrekontuko zordunak zehazten dira; baita, aurreko urteetako mugimendua ere:

Euroak milakotan

KAPITULUAK	Aurrekontu itxiak				Aurrek. 2017	
	17.1.1	Kobr.	Baliog.	17.12.31	17.12.31	GUZTIRA
Landako ondasun higiezin gaineko zerga.....	22	-	16	6	4	10
Hiriko ondasun higiezin gaineko zerga.....	100	2	82	16	8	24
Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga	32	7	20	5	4	9
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga	47	-	25	22	46	68
Eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zerga	30	11	10	9	3	12
Ura hornitzeko tasa (poligonoa).....	12	-	6	6	-	6
Poligonoa mantentzeko kostuak jasanaraztea.....	45	18	25	2	35	37
Hornidura-enpresek jabari publikoaren erabilera prib.....	7	7	-	-	19	19
Bestelako txikiago batzuk	8	1	7	-	-	-
1etik 3rako kapituluaren guztizko partziala	303	46	191	66	119	185
Transferentziak eta diru-laguntzak 4 eta 7 kap.	15	4	11	-	3	3
GUZTIRA	318	50	202	66	122	188



Udalak 95.811 euroan balioetsi du 2017ko abenduaren 31n nekez kobragarri diren saldoentzako hornidura eta halakotzat jo ditu 2017ko urtebetetik gorako antzintasuna duten saldoen % 100 eta zerga-saldoen % 25.

A.9 PROMINBERSA

Udalak % 100 partaidetzen duen Sozietate hau 1995eko azaroaren 10ean sortu zen eta jarduera nagusi ditu Lacorzanillako industria-poligonoa garatzea eta 21 etxebizitzaren sustapena, 2008an amaitu zena.

2017ko ekitaldiko Urteko Kontuak 2018ko maiatzaren 30eko Akziodunen Batzar Nagusiak onartu zituen.

Izakinak eta pasibo arrunta

2017ko abenduaren 31n izakinek honako xehakapen hau zuten:

	Euroak milakotan
Kontzeptua	Saldoa
4 lursail eraikigarri (udal igerilekutarako obren ondoan).....	446
Udal igerilekua-obrak egikaritzeko kostua	233
Garaje bat eta lurren bi lursail	37
IZAKINAK GUZTIRA	716

2013an lau lursail eraikigarriren tasazioa egin zen eta 223.205 euroan balioztatu zituen; honenbestez, horiek zuzentzea dagokio.

Udal igerilekuaren saldoa, 232.907 eurorena, Sozietateak 2007an udal jabetzako lursail batean egindako obrei dagokie, udala kirol instalazio horrekin zuzkitzeko. Sozietateak kopurua aktibatu zuen, baina ez zen mandatua formalizatu eta Udalak ez ditu kopuru horretako obligazioak aitortu; honenbestez, hori ere zuzendu egin behar da.

Pasibo arruntaren epe laburreko zorren saldoa, 65.031 eurorena, 2016 baino lehenagoko saldoei dagokie eta Udalarekin izandako eragiketetan sortuak dira, ez dagozkio hirugarrenetikiko zorrei.

Aurreko paragrafoen zuzenketak aintzat hartzeak eragin du Sozietatearen Ondare garbia 3 doiketen ondorioz 287.906 eurorena izatea, Udalaren finantza inbertsioen saldoa baino 143.018 euro txikiagoa, zeina soil-soilik PROMINBERSAren akzioek osatzen baitute.





ABREVIATURAS

BOTHA	Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.
DFA	Diputación Foral de Álava.
DF 56/2015	Decreto Foral 56/2015 que aprueba el marco regulatorio contable de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Álava.
FOFEL	Fondo Foral de Financiación de las Entidades Locales de Álava.
IAE	Impuesto sobre Actividades Económicas.
IBI	Impuesto sobre Bienes Inmuebles.
IVA	Impuesto sobre el Valor Añadido.
Ley 2/2016	Ley 2/2016 de Instituciones Locales de Euskadi.
Ley 27/2013	Ley 27/2013 de racionalización y sostenibilidad de la Administración Local.
Ley 57/2003	Ley 57/2003 de medidas para la modernización del Gobierno Local.
LRBRL	Ley 7/1985 Reguladora de las Bases del Régimen Local.
NF 3/2004	Norma Foral 3/2004 Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Álava.
NF 11/1995	Norma Foral 11/1995 de Concejos del Territorio Histórico de Álava.
RPT	Relación de Puestos de Trabajo.
TVCP	Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.



I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, y en el Plan de Trabajo aprobado por el Pleno del Tribunal, ha realizado la fiscalización de la Cuenta General del Ayuntamiento de Berantevilla para el ejercicio 2017.

Esta fiscalización comprende los siguientes aspectos:

